



Etxauriko Udala

Ayuntamiento de Etxauri

ETXAURIKO UDAL GAZTELEKUAREN BARNE ARAUDIA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Araudi honen xedea da Etxauriko Udal Gaztelekuaren erabilera eta funtzionamendu baldintzak arautzea. Gaztelekua Zaldualdea plazan dago eta Etxauriko Udalarena da.

2. Artikulua

Gaztelekua udal ekipamendua da gazteei eta gazte elkarteei zerbitzuak eta aretoak eskaintzen dizkiena. Gazteei prestakuntza eta informazioa eskaintzea eta aisialdiko jarduerak, denbora librekoa, hedatze soziokulturala eta abar garatzea dira bere funtzioak. Oro har, Gaztelekua erabili ahal izango du 10 eta 17 urte bitarteko gazte orok.

IREKITZE ORDUTEGIA

3. Artikulua

Neguko ordutegia_(iraila-maitza):

Ostiralak: 19:30etatik - 22:00etara

Larunbatak eta jaiegunen bezperak: 10:00 etatik - 02:00etara

Igandeak eta jai egunak: 10:00etatik - 22:00etara

Opor-Ordutegia: 10:00etatik 02:00etara

Udako ordutegia ekainan begiratuko dugu

00:00 etik aurrera, musikaren eta aretoaren daudenen bolumena bizilagunei ez molestatzeko modukoa izango da



Etxauriko Udala

Ayuntamiento de Etxauri

JARDUEREN EZAUGARRIAK

4. Artikulua

1.- Gaztelekuan egingo diren jarduerak izango dira:

a).- Jarduerak eta programa antolatu eta Udalak proposatutakoak

b).- Erabilera librea elkarte eta taldeentzako

2.- Oro har, Gaztelekuan egin ahal izango dira edozein motatako jolas jarduerak, prestakuntzakoak edo aisialdikoak.

ARETOEN ERABILERA LIBREA

5. Artikulua

Koadrilako giltza bat emango da, eta bat koadrilako arduradunari (aita edo ama).

Galduz gero, Udalari jakinarazi behar zaio.

6. Artikulua

1.- Jardueraren ondoren aretoa jasota utzi behar da.

2.- Aretoa hartzen duen taldeak izango du erantzukizuna jatorik edukitzeko; eta era berean, erantzule izango da bertan daudela edozein kalte gertatuta ere.

3.- Sarrera, komuna eta aretoaren garbiketa, erabiltzailearen ardura izango da eta behar den materiala, Udalaren ardura. Horretarako, barruko arautegi bat egingo da eta bertan erabiltzaileen txandak jarriko dira. Betetzen ez ba adostutakoa, Jarraipen-taldeak ondorioak aztertuko ditu.



Etxauriko Udala

Ayuntamiento de Etxauri

ELKARBIZITZARAKO ARAU OROKORRAK

7.Artikulua

- 1.- Debekatuta dago bizikidetza apurtuko lukeen edozein ekintza: arrazista, sexista, xenofoboa edo homofonoa, batez ere goraiatzten badituzte muturreko portaerak.
- 2.- Elkarbizitzarako eta norberaren garbitasunerako arau sozialak gorde beharko dituzte erabiltzaileek.
- 3.- Gaztelekuko zerbitzuetarako ezarritako ordutegiak errespetatu egin behar dira, denon onerako eta establezimenduaren ordena eta antolamendurako.
- 4.- Janaria eraman daiteke aretoetara, betiere kontu handia izanez ez zikintzeko eta sortzen den zaborra jasotzeko
- 5.- Erabiltzaile orok kontu handia izango du eraikinaren, instalazioen eta altzarien mantentzean.
- 6.- Kanpoaldea eta inguruak, egunero, baldintza higieniko egokietan egon beharko dira.
- 7.- Debekatua dago erretzea.
- 8.- Debekatua dago alkoholdun edariak hartzea
- 9.- Animaliek ez dute sartzerik.



Etxauriko Udala

Ayuntamiento de Etxauri

ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8. Artikulua

Gaztelekua erabiltzen dutenek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Gaztelekuko instalazioak eta zerbitzuak Araudiaren arabera erabiltzea.
- b) Zerbitzuen prestazioen arau guztiez eta bakoitzaz informazio osoa zehatza eta objektiboa jasotzea.
- c) A responder a todas sus iniciativas previa valoración de las mismas por parte del Ayuntamiento y a proceder en consecuencia.

9. Artikulua

Gaztelekua erabiltzen dutenen **betebeharrak** honako hauek izango dira:

- a) Araudiak ezarritakoa eta Etxauriko Udalak esandakoa errespetatzea
- b) Instalazioa, zerbitzuak eta hornikuntza egoki erabiltzea
- c) Udalari berri ematea, ikusten duten matxura kalte edo gorabehera instalazioen funtzionamenduan
- d) Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzea
- e) Instalazioetan egoki portatzea, eta erabiltzaileen bizikidetza erraztuz
- f) Gaztelekuko irekiera eta itxiera ordutegiak errespetatzea
- g) Beharko balitz etxeko lan xumeetan laguntzea Gaztelekuak ondo funtzionatzeko.

10. Artikulua

Aretoaren gastuak: ura, argia, berogailua eta erantzunkizun zibileko aseguruak, udalaren ardura izango dira.

Los gastos derivados de la programación de actividades dirigidas por profesionales, correrá a cargo del Ayuntamiento y de lo/as usuario/as en el porcentaje que se determine en cada taller.



Etxauriko Udala

Ayuntamiento de Etxauri

AZKEN XEDAPENAK

Lehen: Jarraipen-talde bat sortuko da Gazteleluaren funtzionamendua gainbegiratzeko, gatazkak konpontzeko eta zigorrak jartzeko.

Jarraipen taldeak 4 pertsona osatuko dute: 2 taldeen arduradunak izango dira eta beste biak Udalak izendatuta.

Bi hilabetean behin bilduko da Gaztelekuaren funtzionamendua aztertzeko.

Bigarrena: Araudi honek dioenaren inguruan inolako zalantzarik badago, Etxauriko Udalak konponduko du.

Hirugarrena: Etxauriko Udalari dagokio Araudi honetan xedatutakoa garatzeko instrukzioak eta zirkularrak onartzea.

Guztiek jakin dezaten argitara ematen da.

Etxaurin, 2022ko urriaren 15a


Idora Aritzala Etxarren
Etxauriko alkatea

